

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

Unibertsitaterako Lankidetzak- Proposamena

2024-2025 IKASTURTEA

MUGARIK GABEKO EKONOMILARIAK

AURKIBIDEA

SARRERA ETA IRAKASLEEI LAGUNTZA	3
TFG/TFM KO-TUTORIZAZIOA	6
SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK	7
BALIABIDE DIDAKTIKOAK	9
PRAKTIKAK MGE-N	20
IKASLEEN MOBILIZAZIOA	21
EKONOMIA BIRPLANTEATZEN DUTEN EMAKUMEAK	22
LABURPENA ETA KONTAKTUA	23






SARRERA

BIDEZKO EKONOMIA BATENGATIK LANEAN

Mugarik gabeko Ekonomilariak erakundean hainbat urte daramatzagu LHko zentroetan lanean gizarte-eredu bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko helburuarekin. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntzatik abiatuta lan egitea, teoria eta praxia Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin batzen dituzten espazioak sortuz, eredu gauzagarria baita eta bizitzaren iraunkortasuna bilatzen baitu ekonomiaren azken helburu gisa.

Urte hauetan irakasleekin egindako lanari eta ezarritako lankidetzari esker, gure lana gelan garatzeko eduki, espazio eta formatu egokienak identifikatu ahal izan ditugu, malgutasuna eta egokitzapena eskainiz ikasleei eta irakasleei, unean uneko osasun-egoeraren arabera.

Formatu presentziala lehenesten badugu ere, jarraian aurkezten ditugun hainbat proposamen **formatu birtualean edo erdipresentzialean** egin ahal izango dira, **ikasgaiak eta dinamikak egokituz, ikuspegi praktiko, parte-hartzaile eta eraldatzailea** izaten jarrai dezaten.



IRAKASLEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

Mugarik gabeko Ekonomialariok Euskadin Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegitik lan egiten dugu. Gure ustez, **hezkuntza ikasleen eta irakasleen eraldaketa-prozesu kolektiboa da**, pentsamendu kritikorako gaitasuna eta haren transmisioa sustatzen dituzten tresnetatik abiatuta.

Horregatik, ikasturte honetan, irakasleei eduki kritikoak eta metodologia parte-hartzaileak eskuratzen lagunduko diegu, **IRAKASLE INTERESATUEI BANAKAKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA** eskainiz.

Zerbitzu honen bidez, MgE-ren eta gure kide sareen (Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta REAS Euskadi) baliabideak eta horiek ikasgelan aplikatzeko metodologiak eskainiko ditugu.

ZERBITZUAREN XEHETASUNAK

AHOLKULARITZA

Ikasgelako beharren eta irakaslearen testuinguruaren hasierako ebaluazioa.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Ikasleekin lan egiteko kontzeptuak eta jarduera praktikoak azalduta.

JARRAIPENA

Etengabeko laguntza ikasturtean zehar. Ikaskuntzen sistematizazioa eta emandako materialaren berrikuspena.

Informazio guztia ecosfron.euskadi@ecosfron.org
helbidera idatziz edo 722 371 633 telefonora deituz.



Proposatutako gaien
zerrenda



Aurreko lanen
adibideak

GAL/MAL-EN TUTORIZAZIOA

Ikasleek aukeratutako GrAL/MALa elkarrekin tutorizatzeko aukera eskaintzen dugu, edo MgE-ek landutako gaien artean gai batzuk proposatzeko aukera, ikasleak eta irakasleak ez ezik, gizarte-erakundeak ere inplikatu diren egitura triangeluar batean oinarrituz, horrek dakarren balio erantsi eta izaera eraldatzailearekin.

Sartu gure webgunean informazio gehiagorako



SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK

Hona hemen zure ikasgelan dinamika parte-hartzaileen eta ariketa praktikoaren bidez landu ditzakegun gaietako batzuk:

- Sistema ekonomikoaren eraginen eta horiek Garapen Iraunkorreko Helburuekin duten loturari buruzko hausnarketa
- Ekonomia Sozial eta Solidarioa
- Ekonomia feminista
- Ekonomia Zirkularra
- Justizia fiskala
- Finantza etikoak

SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK

METODOLOGIA PARTE-HARTZAILEEN ERABILERA SUSTATZEN DUGU, IKASLEEN EDUKIAK ETA ESPIRITU KRITIKOA BARNERATZEN LAGUNTZEKO, IKASLEEN BEHARRETARA EGOKITUZ

HAUEK DIRA ERABILTZEN DITUGUN TRESNA DIGITAL BATZUK:



Parte-hartze aktiboa eta ikasleekiko interakzioa, galderak denbora errealean botatzearen bidez



Arbel digital interaktibo baten bidez, jarduera baten funtsezko ekarpenak eta ideiak biltzea



Mota guztietako edukiak igo, antolatu eta partekatzea, lankidetzarako espazio digital baten bidez

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

WEBGUNEAN ONLINE DOHAIN DESKARGATZEKO AUKERA
EsF-KO TALDEARI **AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**
ESKATZEKO AUKERA

ecosfron.euskadi@ecosfron.org helbidera idazten
edo 722 371 633 zenbakira deitzen


EKONOMIA KRITIKOARI BURUZKO ESKULIBURUAK



Ekonomia ekologikoa
Ekonomia feminista
Ekonomia Instituzionala
Ekonomia marxista
Ekonomia post-keynestarra
Garapenaren ekonomia



2030 AGENDAREN ZEHARKAKOTASUNA




1. Ikasgelako jardueretarako material didaktikoak
2. Irakasgai berri baten programa-proposamena
3. Baliabide teorikoen multzoa, kontzeptuen berrikuspenetatik entsegu edo artikulu txikietara



MGE BALIABIDEAK UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZARAKO




**Enpresa transnazional
handiak
Atzerriko inbertsio
zuzena
Ekoizpen-kate globalak
Garapen ekonomikoaren
teoriak
Desazkundea
2030 Agenda**



SAKATU IRUDIAN BALIABIDERA SARTZEKO!

MGE BALIABIDEAK UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZARAKO



**Desberdintasun
ekonomikoa eta
progresibitate fiskala
Fiskalitatearen helburuak
Erreforma fiskala
Ongizate estatuaren joerak
Europar
Fiskalitatea eta ekitatea
Emakumeak eta ekonomia:
sistema sozioekonomiko
desberdina**



EKONOMIA ARDURATSU, ZUZEN ETA SOLIDARIO BATERANZKO URRATSAK



Gida hau ikasgeletan erabil daiteke, proposatzen diren baliabideak ahalik eta modurik aproposenean egokituz jarraiko edukiak lantzeko:

- Enpresa eta Giza Eskubideak
- ESStik ekiten
- Genero-ikuspegidun komunikazioa

Unitate bakoitzak edukien azalpena, horiek bereganatzeko dinamikak eta sakontzeko bibliografia ditu. Bakoitza ordubeteko 3 saiotan egiteko pentsatuta dago.



UPV/EHU-KO EKONOMIAREN IRAKASKUNTZAREN DIAGNOSTIKOA



Dokumentu honen helburua da goi-mailako irakaskuntzak esparru ekonomikoan dituen gabeziak aztertzea, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Ekonomia graduan arreta jarriz, eta, aldi berean, pentsamendu ortodoxoan tarterik ez duen ekonomiari ahotsa eta ikusgarritasuna ematea. Ekonomiari ikuspegi, diziplinartekotasun eta zeharkakotasun handiagoa ematearen garrantzia jasotzen du, baita graduaren ahuleziak ere.




ESTATUKO EKONOMIAREN IRAKASKUNTZAREN DIAGNOSTIKOA

Argitalpen hauen bidez, ekonomiaren esparruan goi-mailako irakaskuntzak duen pentsamendu ortodoxoa aztertu eta ikusarazi nahi da, eta aniztasunaren, diziplinartekotasunaren eta zeharkakotasunaren aldeko proposamenak identifikatu.



BALIABIDE GEHIAGO



Maletín de la economía de los cuidados
Ekonomia Feministari buruzko gida,
hausnarketa-galderekin, denboraren
erabilerari buruzko app-arekin,
bizitzako 4 istoriorekin, ETA ASKOZ
GEHIAGO!



La Otra Actualidad Kanala Filmin-en
Arazo ekonomiko eta sozialei heltzen
dieten eta batzuetan ezezagunak
diren arazo eta irtenbideez jabetzen
laguntzen duten filmen bilketa.



BALIABIDE GEHIAGO

El Nido aurkezten dizugu, irakasleak, ikasleak, tokiko garapeneko eragileak, ekintzaileak eta bizitza erdigunean jarriko duen ekonomian interesa duten erakundeak harremanetan jartzeko gure plataforma birtuala.



BALIABIDE GEHIAGO



Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea

Hezkuntza ekonomiko kritiko eta eraldatzailea defendatzen dugun finantza etikoen arloko erakundeen sarea.



Neurriak hartzen baditugu? erakusketa
Bidezko eredu ekonomikoa erakutsi nahi duten 10 panel, pertsonak eta planeta erdigunean jarriko dituen, Giza Eskubideak, desberdintasuna edo ingurumenaren iraunkortasuna bezalako gaiak jorratuz.



PRAKTIKAK MGE-N

Ikasleek hezkuntza-curriculumaren osagai nagusi bat egin dezakete, edo curriculumetik kanpoko esperientzia har dezakete, eta, aldi berean, gizartea eraldatzeko proposamen praktikoak ezagutu eta egiten lagundu dezakete. Halaber, hezkuntza-komunitatearen aurrean egiten duten lana ikusaraztea lortuko dugu, prozesu hori atzeraelikatuz.

Praktiketako ikasleak erabat sartzen dira Mugarik gabeko Ekonomilarien taldean beren egonaldian, posta elektroniko propioarekin, harrera-prozesuarekin eta praktiken jarraipen-dokumentuarekin, beren interesen eta prestutasunaren arabera egokitze, parte hartu duten prozesuarekin ezarritako konpromisotik eta erantzunkidetasunetik abiatuta.

INFORMAZIO GEHIAGO HEMEN



Ikasleen parte-hartzea eta mobilizazioa

AURREZ AURREKO JARDUERAK

Gazteak ahalduntzea eta gaitzea, **prestakuntza-guneen** bidez eta kasu praktikoak ezagutuz:

- UPV/EHUko Udako Ikastaroa
- Beste Ekonomia Bat Abian
Da Jardunaldiak
- Udako Eskola

Idatz iezaguzu **hurrengo edizioen inguruan jakin nahi baduzu**, zure ikasleekin partekatzeko!

EKONOMIA IRAKURTZEN BETAURREKO KRITIKOEKIN

Blog honetan liburuen bidez egungo sistema ekonomikoa deszifratu eta ulertu nahi dugu, ikuspegi kritiko batetik eta alternatiba ekonomiko bidezkoagoak, solidarioagoak eta iraunkorragoak sustatu eta eraikitzeari begira, **irakurri eta gomendatzen ditugun liburuei buruzko aipamenak** eginez.

"HACIA UNA ECONOMÍA AL SERVICIO DE LAS PERSONAS" UNED IKASTAROA

Ikastaroaren helburua ikasleei ekonomia-eredua eta egungo garapen-eredua aztertzeko eta hausnartzeko elementuak ematea da, eta, horrez gain, justizian eta elkartasunean oinarritutako ekonomia berri bati lagun diezaioketen proposamen alternatiboak adieraztea.

2024ko urritik abendura egingo da.


aurreko edizioari
buruzko informazioa

Ekonomia birplanteatzen duten emakumeak

Online argitalpen irekia eta kolektiboa. Emakume akademikoak irakurtzen eta deskubritzen joateko interesak duen edonori parte hartzeko aukera ematen dio, hainbat diziplina, leku eta denboratatik eredu ekonomikoa birplanteatzen lagundu dutenak.

Egileen fitxak material ona izan daitezke unibertsitatean pentsamendu kritikoa sustatzeko. Jarri gurekin harremanetan, ikasgelan lantzeko dinamika posibleei buruz hitz egiteko.

Datorren ikasturterako erakusketa eduki nahi baduzu ere idatz diezagukezu.



Animatu gurekin harremanetan jartzera!

Unibertsitateko irakaslea bazara, ez izan zalantzarik MgE-ekin
harremanetan jartzeko, lankidetzarako modurik onena azter dezagun

- **GRAL EDO MAL BAT KOTUTORIZATZEN**
- GURE **BALIABIDE DIDAKTIKOAK** ERABILIZ
- **SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK** EMATEN
- **GURE ERAKUNDEAN PRAKTIKAK** EGITEKO AUKERA ESKAINIZ
- IKASLEEN **PARTE-HARTZEA ETA MOBILIZAZIOA** SUSTATUZ
- **TALDEKO PROIEKTUAK** GARATZEN

ecosfron.euskadi@ecosfron.org

722 371 633

<https://ecosfron.org/euskadi/>

